

### ASARREBERA?

Eskua emon neutzun uneño bete artan  
zuk irri-lilia zendun zabal-zabal loratu;  
eta lendanaz ubel ziran ezpain lodiak  
eder jaurtika yatzuzan ondotik geratu.

Nik uste neban olantxerik zala giza-bizia,  
alaikor, samur, dantzari, oroiñenez poztua.  
Izan, barriz, zer? Arantz ta onuntz dabillan masma,  
ixil griña mei darion amurruz aunditua.

Ez ete dozu itxasoa gaiztorik begiztatu,  
asarre mende? Aizea orruka, txistuz zoro,  
mendiak pareko olatu ikaragarriz bistsu,  
ziraun tximistaz biei zerupe konkorra osoro ..

Jainko aundi! Il eta bizi, aren leia zakarra!  
Nok siñistu, ain laburrik, alako aldaketa?  
Ordun, nok barne-erazi biziaren etorki?  
Irriaren ordez, baiña, nok uste sastaketa?

Zuk, bai, —deadarrez dago zauri ezin ertsia—  
zuk, len begiko naiatzun orrek, irri gozozko.  
ezpata sartu daustazu biotzaren erdian,  
ta pozik bage naukazu gerora min aundiko!

### INGUMA

Inguma gaizkin, euskal iratxo,  
inguma berein margoz jantzia;  
malo ezkongai, gau ibilkari,  
jre bildur dok kuman umia.

Izotz-lili lez, edur-zalea,  
illunez ator gelara zurbil  
eta zarraren zintzurra oi dok  
estutu, atsa emonik gurpi!.

Ire eztarrian oiuia itorik  
egaztu oi az, gautar inguma!  
Ez nagik, otoi, kezkaz ni jarri,  
ez yat egiaz eder ire luma.

Basajaunaren mezulari piñ,  
gautar inguma!, illun-egoan  
ez akit gogait, ez akit, arren!,  
ez ni bildurtu, ez, ene loan!

### LEIOA

I

Leio, etxearen begi,  
illun ta itxirik dago;  
nok eskua lar sorgiña  
bera edegiteko?

Ustai zerendu gaiñean  
ordua lo zurrunka.,,  
Armiarma eitztariak  
aspertu bako kanta.

Ta leiarrean zut dagon  
jartzxo ergelak, zer?  
Onen zoritxar aundai!  
Danak aiztuta, or iltzer.

## II

Arratsez, euzkia iltean,  
bertatik da edegi;  
ta geroz al orogaitik,  
ezin dau iñok itxi.

Baiña itargi burdian zut,  
betarte mirriz da igaro,  
sorgin baldar iduriko,  
mulu-mulu erio.

Leiar ninia da lauso,  
izar zuria itzali:  
len zabalik zan leioa  
danbada utsean da itxi.

## A R A D E R A

Naiz-ta ardiak marraztu  
Urkiola aizetsuan,  
epel naiz ozkirri,  
artzain abillen, gazte,  
esan eidak garbi:  
Anboto'ri bizkarka,  
Larrano baiño len,  
Asuntza'n bedar leuna  
ardiak ez daben.

Giñarre, azki, ote,  
an ba-dok ugari,  
zenbat-nai asetzeko  
ardi, bildots ta aari.  
Liliak be naikoa  
urre ta minbera;  
danetan begikoen  
nok ez aradera?

Naiz-ta ardiak marraztu  
ta ik oinpean zapal,  
larre lora usaintsua  
beti eder, apal.  
Gotzon egoz abil, ba,  
ene artzain gazte;  
ez egidak oinpean  
loitu larre-lore.

Lo kuluxka ba-dagik  
bazkari ostean,  
or daukak esku zuri  
jre jagonean.

Urrin ba-dok iñozka  
ames eio-arri,  
ur yagok zelai lore  
biotz alaigarri.

Bildotsak janez gero  
aren osto azi,  
ordekan darie gauez  
arnas usain eztzi.  
Ta iri, etxeratzean,  
andreak itauna:  
—«Nundik dok, maitea,  
dakarran usaiña?»

\* \* \*

Gotzon egoz abil, ba,  
ene artzain mazal;  
ez egidak oinpean  
aradera zapal.